

## **Mikel Zubeldia. Manikien Galeria.**

2003.eko Txomin Agirre Saria.

**Karlos del OLMO**

Euskal Herrian sarri ere sarri eztabaidak sortu izan dira literatur sariak direla bitarte. Aldeko eta aurkako sutsuak dituzte. Euskadi Sariak berak, sari nazionala izanik, hautsak ederto harrotu ditu azken bi urteotan. Inork ez du zalantzarik egiten haietako batzuek harrobi edo saio leku moduko bat direnik, idazle berriei plazara lehenengo biderrez hurbiltzeko aukera edo bidea. Gauza jakina da, bestalde, argitaletxe handiak ahalegintzen direla merkatua moldatzen, bideratzen eta kontrolpean edukitzen. Eta horrek, zelan edo hala, jendearen irakurgaiak baldintzatzen ditu. Liburu jakin batzuk sustatzen eta lau haizeetara aditzera ematen dirutzak inbertitzen dituzte argitaldarien. Ikusi besterik ez dago zelako industria sortu duen Harry Potter sortak. Euskal Herrian, jakina, dirutzak baino, dirutxok mugitzen dira areago. Baina gainerako literaturetan ohiko direnen antzeko mekanismoak hasi dira agertzen han eta hemen gure baranoan ere. Eta borrokatxoak eta tirabirak ere jazotzen dira argitaletxeen artean, eta idazleen artean ere, komunikabideetan norik publikitate gehiago lortuko. Kaltedun, lagunik edo eragiteko biderik ez duten lagunak, inongo ganbaratxo edo taldetan ez dagoen idazlari malerusa. Hori, bestelako barik, nahikoa litzateke, hasi bidez, zenbait erakundek antolatutako sari literarioei eusteko, luzaro bizirik irauteko.

Baina merkatuaren eta idazlearen artean kontraesana ageriko bai agerikoa sortzen da: idazleak gero eta lotuago daude merkatu erabakiei. Gurean, euskarazkoan, alegia, ere bai. Idazleak, kosta hala kosta, bere jarrerari eutsi behar dio zentsuraren beldurra edo irakurleen gustukoa ez izateko izumena gorabehera. Sari guztiak ez dira berdinak, jakina. Ez da berdín, esaterako, izangaien izenak gordean

izaten dituztenak edo sormen beka batzuk, non hasiera-hasieratik izangaiak nor diren *vox populi* den, ezelako isil gorderik izaten ez delako. Edo Espainiako sari ezagun baten antzera, sariduna bera izendatu aurretik, eleberria inprimategian jartzen ei duena.

Itaun bat ere egin daiteke: zenbateraino ez ditu gaurko literaturak saltzaileen edo enpresen gurariak jasotzen eta ez idazletzaren benetako egoera, idazleen ideologia edo guraria? Gero eta sarriago, itxuraz, gure inguruan, ospetsu edo lagunak laguna izan beharra dago idazten hasi aurretik, hau da, lan onik idaztea baino, hobe ospetsua izatea edo aita-ama pontekoren baten bultzada izatea. Egun sari bat irabazteak Euskal Herrian ezertxo ere segurtatzen ez duelako, ezta ia inongo aterik zabaltzen edo biderik ebakitzen ere.

*Manikien Galeria* oharkabean igarotzea galera nabarmena litzateke euskal irakurleentzat. Gauza jakina da, ordea, literatur sari batzuek, diruaz edo nolabaiteko ospe apurraz gain, ahanztura ekarri ohi dutela lagun, horrelako liburuak nekez sartzen direlako komunikabide, kritika eta banaketa sare arruntetara. Hau da, ginda gozo dela, min da.

Autu igarria da, oro har, bi kritika mota daudela, esatea ere Pelloren egiazat jo daitekeen arren. Kritika negatiboak eta positiboak. Nahiz eta hirugarren bat ere gehitu litekeen: kritikarik eza, hau da, existentzi ukazioa bera. Kritika negatiboa baino txarrago gertatzen delako informazioaren gizartearen zurrumbiloan ez egotea, inon ez agertzea, azken burua, inor ez izatea.

Kritika negatiboak berehala baztertu ohi du osorik ulertzen ez duena, akatsak bilatzen ditu eta hutsak handitzen, azken buruan, harako lan baten edertasuna eta erabilgarritasuna edo eraginkortasuna ukatzea duelako helburutzat. Positiboa egilearekin bat izatearen edo egitearen atzetik doa, idazlanaren balioak bilatzen ditu, giza kultur ondarearen osagai bihurtu gura izaten du liburua. Bata gauzkoa da, iluntasunaren erresumakoa, bestea egunezkoa, eguzki bete-betekoa.

Gizarte oihartzuna irizpide, aurrerena suntsitzaille gertatzen da, bigarrena, ordea, lagungarri. Guztiarekin ere, errazago da, egun, kritikariak berak gizartean arrakasta lortzea kritika txarraren bidetik, hau da, kritika makurraren bitartez kritikaria ere gizarte gertakari

bilakatzea. Bestela, lagunarentzako edo harako argialetxearentzako txalo errazaren erresuma geratuko da.

Baina zelan banandu kritika ona eta propaganda? Eta nola bereiztu, bestalde, kritika zorrotza eta gaitoa? Ez da erraza, ez, inondik inora. Ezta ere kritikagileak bere jakinduria erakusteko aukera ez balliatzea harako egilearen lana aitzakia. Gauza jakina da askozaz ere errazago gertatzen dela propagandan jardutea kritika egitea baino. Batez ere Euskal Herri txiki honetan. Baina, bestalde, nor du harako idazlearen edo itzultzailearen ahalegina zapuzteko edo alde batera uzteko eskua? Etika, jakina, ez omen da oso berba gai eroso. Kontzientziaren orroak isilaraztea neketsu gerta daiteke hasieran, baina, apurka-apurka, geroa eta errazago izaten da isil irautea, ezer ez esatea. Edo lagunak lagun fidela izatea.

Kritika edo kritikarik eza, bestenez, ezin isola daitezke bizi dituen gizartetik. Eta gizarte horren bilakaeratik. Zorigaitzez, batuek idiaren eroana gurago izaten dute. Eta beste batzuek, zio argirik izan ez arren, jaun eta jabe sentitzen dira, edonondik begiratuta ere, kulturaren eta literaturaren belar ona txarretik bereizteko gai, norik balio duen eta nori dagokion betiereko kondenazioa esateko gauza.

Egjazale izan gura duen kritikariak, bestalde, noraezoko du bere gustuez bestaldera joaten ahalegintzea. Ia ezinezkoa den arren. Ikusi besterik ez dago zeinen zabal dabiltzan literaturaren baratzean aurreiritziak. Egia zierto eta berdadera da gure "sari nazionaletan" eta kritika argitalpen batzuetan liburu bat baino gehiago ez bazter gertatzen dela harako argialetxeak plazaratu dituelako, edo idazlea eza-gun ospetsuen aldrakoa ez delako. Ala obrak bestelako literatur sari horietako bat irabazi duelako. Euskal literaturan gauza batzuk zertan diren ikusteko, ikusi besterik ez dago zenbat bazter astindu dituen *Gure Gauzak SA* lanak.

Literatur kritikak laudorioaren eta gaitzespenaren arteko *no man's (and woman's) land* zabal hura du lan eremu. Eta kritikariak akuilari izan ohi ditu mota konpromisoak, sentimenduak edo ganoragabetasuna, mota bati doakionez, ala zaputza, bestea mintzagai hartuta. Kritikariak sarri ere sarri irakurlea, herria bera ahaztea ere litekeena, baina, azken buruan, helburu pedagogikoa ez da ahanzturaren tunelean utzi behar: irakurleak baliabideak behar ditu zerbait irakurtzerakoan era lausoan edo bizian sentitzen duena egituratzeko, ulertzeko, teorizatzeke. Eta eginkizun horretan langai ederra du kriti-

kariak eta adituak. Ahaztu barik, azken buruan, irakurlea askozaz ere kritikari hobe dela, kritikariaren edo adituaren beraren aparatatu teorioa eta jakinduria oztopo bihurtu ohi direlako idazlanaz gozatzeko orduan. Literaturari dagokionez ere ekarri behar da gogora esaera zuhur ezaguna: inor ez dabil hobeto buru edo hanka asko edukitzeagatik, osasun onekoa izateagatik baino. Literaturan eta kritikan ezertarako ez denik edo etxekalterik den arren, ugariak dira, zorionez, ahalmen handiko pertsona zuzenak. Halakoek, ordea, ez dira hain erraz komunikabideetara heltzen, ez dutelako txalo merkerik jotzen edo, bestelako barik, betiereko sura inor kondentatzen ez dutelako. Euskal Herriak, bizi duen egoeraren ondorioz apika, idoloak behar ditu, nor gurtuko bila dihardu etengabe, sortzaile ospetsuren bat izateak herria edo kultura do hizkuntza salbatuko duelakoan. Baina inongo Nobel Sarik ez du orain artekoan lortu herririk askatzerik ala hizkuntza edo kultura bat salbatzerik. Eta joera horrek kalte handia egiten du, ezbairik gabe, kanpokoek gureari aitormena noiz emango barruan sortzaile baliotsu batzuek hautsa eta ahanztura batzen dihardutela.

Egitura eta estilo aldetik berezia da Zubeldiraren eleberria. Geografia irudimenezkoa asmatzen du kontakizuna kokatzeko, baina benetako nazio eta hiri batzuk erraz antzemango ditu irakurleak, benetako aipuekin nahastuta. Literatur joerei dagokionez ere, erraz igartzen diren lokarriak topatuko ditu jakingurakoak, han-hemenka mugarri jarrita. Berritasun formalik ere badakar, adibidez, eleberrirako berariaz sortutako komiki zatiak, hitzeko pertsonalekin batera ehunduta, edo hainbat argazki eta zine irudi, bestelako ikonografia edo metahizkuntza moduko bat sortzeko. Nobela beltzetik eta umorezkoetik edaten du, baina beti ere giro tropikal halako bat nagusi dela. Esanguratsuak izaten dira literaturan kapitulu sarreretako aipuak idazlearen eta obraren lerro ezkutuak ulertuko badira. Hona hemen honako galeria honetako batzuk: Vicente Aleixandre, Ariel Santibáñez, euskal herri kanta, Julio Cortazar, Rabelais, Ribeyro, Poe, Conan Doyle, zenbait zine pelikula...

Literatur sariak harira ekarrita, *Manikien Galeria* eleberriak jatorri du Erreterria Hiria 2002.eko ipuin lehiaketan saria irabazitako izenburu bereko ipuin bat. Egoera berezia, inondik inora, eleberria saritu zuten jaun-andreak baldin eta horren jakitun bazeuden (lehiaketa arauak interpretatzerakoan gorabeherak sor litezkeen) eta ez bazeu-

den ere (beste sarietan zer gertatzen den ez jakitearren). Ezin uka daiteke, halandaze, epaimahai bik Mikel Zubeldiaren idazketan zer edo zer berezia aurkitu dutenik. Eta hori, gaur eta hemen, asko da. Azken buruan, literaturaz at, *Life is a Bitch!*

1. Mikuiztasun eta sariak

...

...